

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2021EKO URTARRILA

Euskal AEko landetxeetako sarrerak % 83,3 jaitsi dira 2021eko urtarrilean, eta apartamentu turistikoetakoak % 59,2

Gaualdiei dagokienez, urte arteko jaitsierak % 77,4 izan dira landetxeen kasuan eta % 17,3 apartamentu turistikoenean

Eustaten datuen arabera, 2021eko urtarrilean 803 sarrera eta 3.328 gaualdi izan dira Euskal AEko landetxeetan. 2020ko urtarrilaren aldean % 83,3 eta % 77,4 egin dute behera, hurrenez hurren.

Landetxeetan ostatu hartu duten pertsona gehienak Estatukoak izan dira, guztien % 89,3. Aurreko urteko hil beraren aldean, sarreretan izandako jaitsierak antzekoak izan dira Estatukoak eta atzerrikoen kasuan: % 83,2 eta % 84,0, hurrenez hurren. Gaualdiei dagokienez, Estatukoak % 74,0 jaitsi dira urte artean 2021eko urtarrilean, eta atzerrikoak, berriz, % 91,6.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak. 2021ko urtarrila

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/01	m/m-12 (%)	2021/01	m/m-12 (%)	2021/01	2020/01	plazaka		gelaka	
							2021/01	p.p.*	2021/01	p.p.*
EUSKAL AE	803	-83,3	3.328	-77,4	4,14	3,07	3,1	-11,1	5,4	-12,0
Estatukoak	717	-83,2	3.086	-74,0	4,30	2,78	-	-	-	-
Atzeritarrak	86	-84,0	242	-91,6	2,81	5,38	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	114	-88,2	571	-74,4	5,01	2,30	2,5	-6,5	4,5	-6,6
Estatukoak	112	-88,1	552	-74,9	4,93	2,33	-	-	-	-
Atzeritarrak	2	-92,3	19	-40,6	9,50	1,23	-	-	-	-
BIZKAIA	255	-75,7	1.047	-64,9	4,11	2,84	3,6	-6,7	6,3	-7,8
Estatukoak	225	-77,2	940	-66,9	4,18	2,88	-	-	-	-
Atzeritarrak	30	-52,4	107	-23,0	3,57	2,21	-	-	-	-
GIPUZKOA	434	-84,4	1.710	-82,1	3,94	3,42	3,1	-16,0	5,3	-17,5
Estatukoak	380	-83,8	1.594	-76,6	4,19	2,91	-	-	-	-
Atzeritarrak	54	-87,9	116	-95,7	2,15	6,06	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko alde

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Lurraldea non gehien jaitsi diren sarrerak Araba izan da, 2020ko urtarrilean baino % 88,2 gutxiago; ondoren Gipuzkoa dago, urte arteko % 84,4ko jaitsierarekin. Azkenik, Bizkaian aurreko urteko hil berean baino % 75,7 sarrera gutxiago izan dira urtarrilean. 2021eko urtarrilean izandako gaualdien kopuruari dagokionez, Gipuzkoan izan da urte arteko jaitsierarik handiena, % 82,1ekoa. Araban jaitsiera % 74,7koa izan da, eta Bizkaian % 64,9koa.

2021eko urtarrilean, Euskal AEko landetxeetako batez besteko egonaldia 4,14 egunekoa izan da, 2020ko urtarrilekoa (3,07 egun) baino nabarmen handiagoa.

Arabako lurraldean aldea are handiagoa da; izan ere, azken urtarrilean batez beste 5,01 eguneko egonaldia izan da, eta iazko urtarrilean, aldiz, 2,30 egunekoa. Bizkaian ere nabarmen egin du gora balio horretan, 2020ko urtarrilean 2,84 egun izatetik azken hilabetean 4,11 egun izatera igaro baita. Gipuzkoan ere batez besteko egonaldia luzatu du, baina aldaketa neurritsuagoa izan du: 2020ko urtarrilean 3,42 egunekoa izan zen, eta aurtengo urtarrilean 3,94 egunekoa.

Plazen araberako eta gelen araberako betetze-mailek oso balio baxuak izan dituzte Euskal AE osoan: lehena % 3,1ekoa izan da, eta bigarrena % 5,4koa, 2021eko urtarrilean. Beraz, urtetik urterako beherakadak ehuneko 11,1 eta 12,0 puntukoak izan dira, hurrenez hurren.

2021eko urtarrilean landetxeen % 31,4 itxita egon dira hileko egun guztietan; iazko urtarrilean, berriz, % 26,5 egon ziren itxita. Landetxe itxien proportziorik handiena Bizkaian dago, % 37,4, eta Araban eta Gipuzkoan % 34koa eta % 26koa izan da, hurrenez hurren.

Itxita mantendu diren landetxeak (%). COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.			ARABA/ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019
Urtarrila	31,4	26,5	25,5	34,0	20,6	21,8	37,4	31,8	25,8	26,0	26,2	27,4
Otsaila		23,7	24,3		13,7	15,8		30,2	28,1		24,6	26,3
Martxoa		23,1	17,5		15,2	10,9		27,1	18,1		24,7	20,5
Apirila		92,7	11,6		97,1	6,8		91,4	12,5		91,2	13,6
Maiatza		60,9	12,1		71,4	6,8		57,8	14,1		57,2	13,6
Ekaina		33,4	11,4		35,2	6,9		32,6	12,6		33,0	13,1
Uztaila		18,6	8,3		16,2	5,9		21,4	8,7		17,9	9,4
Abustua		16,1	8,1		11,4	5,9		18,6	9,4		17,0	8,4
Iraila		15,4	8,1		11,4	6,9		17,7	9,4		16,0	7,9
Urria		18,0	10,0		16,0	4,9		19,2	12,4		18,2	11,0
Azaroa		28,6	13,5		25,5	6,9		35,9	20,2		25,5	12,6
Abendua		30,7	15,6		27,4	11,8		37,4	20,9		28,0	14,1

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2021eko urtarrilean 1.748 sarrera eta 14.422 gaualdi izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko hil beraren aldean sarrerak % 59,2 gutxitu dira, eta gaualdiak % 17,3.

Estatutik etorritako sarrerak % 53,7 jaitsi dira, eta atzeritik etorritakoak % 79,0. Gaualdien kasuan, jaitsiersa % 13,0koa izan da Estatuko kasuan, eta % 30,5ekoa atzerrikoenean.

Lurraldekako bilakaera ez da uniforme izan. Araban apartamentu turistikoetako sarrerak % 17,8 jaitsi dira 2020ko urtarrilaren aldean, eta gaualdiak % 30,3. Bizkaian urte arteko jaitsiersa % 60,5ekoa izan da sarreretan eta % 43,2koa gaualdietan. Azkenik, Gipuzkoak bilakaera ezberdina izan du; izan ere, sarrerak % 70,7 jaitsi badira ere, gaualdiak % 28,5 gehitu dira.

Sarrerak, gauraldiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak Euskal AEko apartamentu turistikoean. 2021ko urtarrila

	Sarrerak		Gauraldiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/01	m/m-12 (%)	2021/01	m/m-12 (%)	2021/01	2020/01	plazaka		apartamentuka	
							2021/01	p.p.*	2021/01	p.p.*
EUSKAL AE	1.748	-59,2	14.422	-17,3	8,25	4,07	15,2	-7,0	35,5	-17,0
Estatukoak	1.551	-53,7	11.409	-13,0	7,36	3,92	-	-	-	-
Atzeritarrak	197	-79,0	3.014	-30,5	15,29	4,61	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	409	-17,8	4.016	-30,3	9,82	11,58	14,5	-6,3	42,2	-18,5
Estatukoak	380	-17,3	3.200	-33,1	8,42	10,42	-	-	-	-
Atzeritarrak	29	-24,2	816	-16,3	28,14	25,47	-	-	-	-
BIZKAIA	883	-60,5	3.651	-43,2	4,14	2,88	10,7	-12,9	26,3	-19,6
Estatukoak	797	-55,8	2.809	-38,5	3,52	2,53	-	-	-	-
Atzeritarrak	85	-80,0	841	-54,7	9,85	4,35	-	-	-	-
GIPUZKOA	456	-70,7	6.756	28,5	14,80	3,37	20,3	-1,8	37,3	-12,9
Estatukoak	374	-65,5	5.399	43,8	14,45	3,47	-	-	-	-
Atzeritarrak	83	-82,6	1.357	-9,8	16,41	3,16	-	-	-	-

p.p.* = aurreko urtearekiko ehuneko-puntu alde

Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoean batez besteko egonaldia 8,25 egunekoa izan da 2021eko urtarrian, hau da, 2020ko urtarrian izandako 4,07 egunekoa batez besteko egonaldia baino askozaz handiagoa.

Lurraldeka, Gipuzkoa nabarmentzen da batez besteko egonaldi luzeenarekin, 14,8 egunera iritsi baita 2021eko urtarrian (3,37 egun 2020ko urtarrian). Ondoren Araba dator, 9,82 egunekoa batez besteko egonaldiarekin, 2020ko urtarriko 11,58 egunekoaren azpitik, eta, azkenik, Bizkaia, non batez besteko egonaldia aurtengo urtarrian 4,14 egunekoa izan baita, hau da, 2020ko urtarrian atzemandako 2,88 egunekoaren gainetik.

Euskal AEko apartamentu bakoitzeko betetze-maila % 35,5koa izan da 2021eko urtarrian, urte arteko ehuneko 17,0 puntuko atzerakadaren ondoren. Lurraldeka, Araban % 42,2ra iritsi da (2020ko urtarrian baino ehuneko 18,5 puntu gutxiago), Bizkaian % 26,3ra (ehuneko 19,6 puntuko beherakadaren ondoren) eta Gipuzkoan % 37,3ra (aurreko urteko hilabete berean baino ehuneko 12,9 puntu gutxiago).

Euskal AEn, osotasunean hartuta, apartamentuen % 24,1 itxita egon dira urtarriko egun guztietan, 2020ko urtarrian baino ehuneko 2,8 puntu gehiago. Hilabete osoan itxitako apartamentuen proportzioa % 30,8ra iritsi da Gipuzkoan, % 21,7ra Araban eta % 15,2ra Bizkaian; azken lurralde horretan, itxitakoen proportzioa 2020ko urtarrian ikusitakoa baino txikiagoa izan da.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren apartamentu-establezimenduaren unitateak.
COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.			ARABA/ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019
Urtarrila	24,1	21,3	12,5	21,7	13,6	10,0	15,2	21,4	12,0	30,8	25,0	14,3
Otsaila		21,3	12,2		13,6	10,0		21,4	12,0		25,0	13,5
Martxoa		18,0	8,5		13,0	5,0		22,6	4,0		17,4	13,5
Apirila		78,0	6,1		73,9	5,0		74,2	4,0		82,6	8,1
Maiatza		55,0	6,0		43,5	5,0		54,8	3,8		60,9	7,9
Ekaina		27,7	4,7		30,4	4,8		16,1	0,0		34,0	7,9
Uztaila		14,6	4,7		21,7	4,8		6,3	0,0		16,7	7,9
Abustua		11,8	5,9		13,0	4,8		6,3	0,0		14,9	10,5
Iraila		11,8	5,9		13,0	4,8		6,3	3,8		14,9	7,9
Urria		14,2	5,5		13,0	4,8		12,5	3,7		15,7	9,3
Azaroa		29,6	8,5		26,1	4,5		81,8	7,1		32,7	11,4
Abendua		25,0	14,1		17,4	4,5		18,2	14,3		32,7	9,1

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio-oharra

2021eko urtariletik aurrera, inkesta honetako (ETHI) datuak bi zatitan zabalduko dira. Lehenik eta behin, hotel-establezimenduei buruzko datuak zabalduko dira (ETHI-H), eta egun batzuk geroago inkestan sartutako gainerako establezimenduei buruzkoak (landetxeak eta apartamentu turistikoak), ETHI-Hie izen generikoarekin.

Eustatek inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eskerrak eman nahi dizkie egindako ahaleginagatik, nahiz eta gaur egungo egoera ezohikoa izan. Haiei esker, eta % 97,3ko estaldurarekin landetxeen kasuan eta % 95,4koarekin apartamentu turistikoenean, informazio hau zabaldu ahal izan da, zeinek aukera ematen baitu kuantifikatzeko COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurriek sektorean izan dituzten ondorioak.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: Tlf.: 945 01 75 62